

HITZ BITAN

PIRAGUISMOA

Oier Aizpuruak zilarrezko domina lortu du Europako Txapelketan, 200 metroko proban

Zumaiako Itxas Gain elkar-teko Oier Aizpuruak zilarrezko domina irabazi zuen igandean jokaturako Europako Txapelketako 200 metroko proban, Espainiako lauko piraguan. Oierrek Jaime Acuña, Manuel Muñoz eta Aike Gonzalez izan zituen taldekide. Abuztuan Munduko Txapelketan hartuko du parte, Sevillan, eta han ere dominaren bat lortzea dute helburu.

TXIRRINDULARITZA

Bjarne Riisek dio CSC Tiscalik Freire fitxatu nahi duela

CSC Tiscali taldeko kirol zuzendari Bjarne Riisek adierazi duenez, bere taldeak Oscar Freire fitxatzeko interesa du. Riisek onartu du txirrindulariarekin eta haren ordezkariarekin hitz egin dutela, baina oraindik ez omen dira ados jarri, taldeak eskaini ditzakeen baino urte gehiago nahi dituelako txirrindulariak. CSC Tiscalik Freirerengana pentsatu du Laurent Jalabertek utziko duen hutsunea betetzeko.

FUTBOLA

Bartzelonak aske utzi du Rivaldo, eta Milanek, jada, 3 milioi euro eskaini dizkio denboraldiko

Rivaldoren eta Bartzelonaren arteko kontratua bertan behera gelditu da, eta jokalaria jada hasi da eskaintzak jasotzen. Ez dela Real Madrilerako joango agindu dio Bartzelonari, eta, ziurrenik, Italian edo Ingalaterran jokatu du. Milanek, jada, hiru milioi euroko eskaintza egin dio, jokalaria gehiago eskatzen duela jakin arren. Newcastle ere interesaturik dago.

AIZKORA

Nafarroako II. Mailako kanporaketa abuztuaren 2an jokatu da, Beran

Aste honetan zen jokatzekoa Nafarroako II. Mailako Txapelketaren kanporaketa, Elizondon, baina aldatu egin dute. Azkenean, abuztuaren 2an jokatu da, Beran, arratsaldeko 05:00etan. Besteak beste, aizkolariok dira aritzeak: Joxeinazio Flores, Manuel Kañamares, Aitor Senosiain eta Jaime Gorriti.



TOLOSALDEAN EGUNERO

Lopetegi eta Zabaleta, Montmeloko podiumean

Martin Lopetegi irurarrak eta Mikel Zabaleta ibartarrak emaitza bikaina lortu zuten Montmeloko 24 orduko iraupen lasterketan, Tony Gil taldekide mallorkarrekin batera. Hirukotea bigarren sailkatu zen super-stock mailan, eta seigarren izan ziren sailkapen orokorrean. Hiru gidariak azkar eta seguru ibili ziren lasterketak iraun zuen

24 orduetan, eta Suzuki GSRX 1000 motorrak ez zuen matxurarik izan. Lopetegi eta Zabaleta oso pozik zeuden, iazko emaitza hobetzeko gauza izan baitira. Iaz 12. izan ziren sailkapen orokorrean eta laugarren beren mailan. Hurrengo lasterketa Albaceten izango dute.

1 FORMULA. Frantziako Sari Nagusian gailenduta, bosgarren aldiz irabazi du Munduko Txapelketa

Laurentzi Garmendia | DONOSTIA

Australia, Pazifikoa, Japonia, Hungaria eta, orain, Frantzia. Munduko toki guztietan lortu du txapela. Dagoeneko Michael Schumacher 1 Formulako historiako protagonista da, Juan Manuel Fangiorekin parekatuta. Ezinbestekoa da bien arteko konparazioak egitea, baina horren aurretik oso kontuan izan behar da bakoitzak zer eta noiz egin zuen. Igandean Schumacherrek beste lasterketa bat irabazi zuen; hori *bakarrik*.

Eta pena izan zen garaipena horrela lortu izana. Neurri batean, lasterketa ederra osatu zuen, inolako erraztasunik gabea, eta, garaipena eskuratzeko, majo sufritu behar izan zuen. Ezarri zioten zigorra erabat zuzena izan zen, geroago Coulthardi aplikatu ziotena bezala, eta horrek postu pare bat galtzea ekarri zuen. Bere hutsa izan zen, baina bizitasun handia eman zion lasterketari.

Ordura arte hutsik egin ez zuen 22 urteko Kimi Raikkonen gazteari egokitu zitzaion lasterketaren lidergoa, baina Allan McNish Toyotako gidariaren autoak utzitako olioak balazta-

Bostekoa Schumacherri

PIERRE VERDY / EPA

Michael Schumacher, Frantziako Sari Nagusian.

tzean arazoak ekarri zizkion eta bihurtu hartan bere itxaropen guztiek ere irrist egin zuten. Bere bizitzako emaitzarik onena lortu zuen gazte finlandiarrrak, baina inoiz ez bezalako amorru eta tristura zuen podiumean. Raikkonenek atzo erakutsitakoa ez zen izan hala nolakoa, abiaduraz gain heldutasuna ere azaldu zuelako. McLarenen hobekuntzak mesede egin

zion, dudarik gabe, eta oraindik gelditzen diren sei lasterketetan gauza politak egingo ditu.

Hurrengo astean, Alemanian

Schumacherrek ez du denbora askorik bere garaipenaz gozatzeko, asteburu honetan bertan Alemanian baitu segida 1 Formularen zirkuak. Aurten inoiz baino errazago lortu du txapela, eta marka guztiak hautsi di-

tu. Denboraldiaren %64 bakarrik behar izan du matematikoki txapelketa irabazteko. Schumacherren beraren eta Ferrarien maila ederra ikusarazteko balio du horrek, baina gainerakoek zerbait ez dutela egin behar bezala ere esan nahi du. Non da Barrichello? Beste behin, Ferrari ez dio eman auto egokirik, baina Schumacherren garaipenak guztia ezkutatzeko du. Entrenamenduetako denborek diote aurten brasildarra inoiz baino lehiakorragoa dela, baina lau lasterketatan arazoak izan ditu irteeran. Ez da serioa.

Gainerako taldeek ere ez dute berretsi euren zegoen itxaropena. Aurten Williams autoak behar zuen Ferrariaren aurkari nagusi. Montoyaren magia kualifikazioetan bakarrik izan da gai autoaren irregulartasunei gailentzeko. Ralf Schumacher apaldu egiten da denboraldiaren bigarren erdian, eta Mercedesek ez dio prestatu motor egokirik McLareni azken bi urteotan.